


### 3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresak hainbat funtsezko itun osatu behar ditu. Lehenik eta behin, enpresa informatiko edo programatzaile batekin. Horrez gain, inguruko herrietako udalekin ere. Azkenik, enpresa txiki eta lokalekin.

Enpresa informatikoak edo programatzaileak app-a programatzen lagunduko digu. Izan ere, enpresa digitala izango denez, app baten bidez funtzionatuko du eta ezinbestekoa dugu baliabide informatikoak eskuratzeko.



Udalak lan eskaerekin lagundu diezaguke, herriko denda, fabrika ala enpresaren bat langile bila ari bada guri jakinariz gero, geuk gure app-ea gehitu dezakegu, lanpostu gehiago eskainiz.

Enpresa txiki/lokalak bultza nahi ditugunez, beraiekin ere harremanean egongo gara. Udalen antzera, langileak behar badituzte guri jakinaraziko liguke guk bilatzeko.

